



San Pelaixoko ermintxia (1955)

*A*urtengo haize zazkarrak bota dabe erretratuan ikusten dan arboliori. Haren onduan beste lizar zahar bat euan, ta han dao ondiñok, tente.

San Pelaixoko erromerixa egunian errossilla salzailiak egoten zian, ta bertan eitxen zan meza nausixa. Asto bati elizako harmoniua lotzen jakon ta bertara eruaten zan. Meza ostian ezpatadantzariak, aurrekulariak ta txistua ta tanboliñak animatze eben jaixoi. "Txirringoletan" edo "Txopura igoten" norgehixagokak egoten zian.

Gerra ostian bizikleta karrerak eitxen hasi zian. San Pelaixotik Kaltxangora, handik Aitxixoko bidia hartu, ta Ziarreko bueltatik Torretaneko landan ondoko burdibidetik San Pelaixora bajatzen zian karreristok. Buelta hori hanenbeste bidar eitxia izaten zan gauziori.

Plazara etortzen zan gero txistularixekin pasakallesian. Gabian bandiak joten eban ta domeka horretan hasi ta abutuzko lehen domekararte egoten zian bailibliok plazan.

Ermintxa honen lehengo aitxamena 1691. urtekua da. Jausteko arriskuan euan ordurako. Sallabenteko er-

mintxiari urte horretan "maravedi" (aintxiñako dirua) batzuk sobrau jakozan; alkarri prestau, ta haretxekin konpontzia pentsau zan. Baiña antza danez, tratuak ez eban aurrera ein, ze idatzitxa dauan lez, handik lau urtera San Pelaixoko ermintxiori behia jota euan. Opispuak zortzi hillabeteren barruan barrero altxatzeko agindua emon eban.

1695. urte horretan altxautakua ontzu bota da, etxiak eitxeko traban eualako. Ermintxia egon zan lekutik urran, kapillatxo bat ein zan santuaren irudixa ipintzeko. Irudixau barriztau ein bihar izan zan, sitsak janda euan ta begi bat ekan faltan. Erromerixa egunerako margarita bat ipiñitxa konpontzen zan begi faltiori.

Barrukaldetik edarra zan. Hiru altare ekazen, ta sartu ta ezkerrera korura igoteko egurrezko eskillarak euazen, barandau zoragarrixakin.

Portikoko lurra harlosakin einda euan, ta atian onduan bentana txiki bat ekan. Haraxe botatzen zan limosnatarako dirua. Albo bateko ta atzeko hormen kontra harrizko jarleku bat ekan etarata. Negu aldian hanxe egoten zan euzkirik gozuena.